kuŕi digu. Txosten au Erizkizundi-Irukoitza dala-ta egiña dago. Iru zati ditu: 1.° Erizkizundiaren zailtasuna; 2'en, beronen itxurazko alperbidea; 3'en, oŕentxen onura ta onbidea, baldin auŕetik *Atlas lingüístico* egiten bada.

III.—A. Intza'k Napaŕoa'ko euskal-esakera batzuk irakuŕi dizkigu.

IV.—Ildako urgazle Pedro M. Uŕuzuno idazle atsegintsail̃earen ordez, beste urgazle bat aukeratu bear da. Euskaltzaindiak Donostia'ko asteroko *Aŕgia*'ren Zuzendari dan Bil̃or Garitaonandia jauna ortarako aukeratu du.

V.—Euskaltzain batzuek Euskaleŕitik uŕuti dijoaz: eren arazoak aruntz deitzen ditu: abek Altube eta Olabide jaunak dira. Aben ordez, biurtzen diran arte, urgazle batzuek aukeratu bear dirala Euskaltzaindiak deritza, il̃eroko batzaŕaldietan bear ain euskaltzain izan ditezen. Bilbo'ko batzaŕaldietarako Nazario Oleaga eta Nikolas Ormaetxea aukeratu dira eta Donostia'koetarako Gregorio Muxika eta Bil̃or Garitaonandia.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldi au.

---

## Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1925'ko Azaroa'ren 26'an.

Batzar ontara euskaltzain abek datoz: Azkue, Kanpion, Urkijo, Landeŕetxe, Olabide, Intzagarai, Intza eta Labonbe eta urgazle diran euzkaltzain ordezkoak Muxika ta Garitaonandia.

Otoitzez asi da batzaŕaldia.

I.—Osoro naigabez asi du Euskaltzaindiak batzaŕaldi au, Euskaltzainburuak Karmelo Etxegarai euskaltzain zanaren il-oroitza dakaŕelako.

Meza bat ateratzea erabaki da ta auxe bigar izango da Kaputxinoen elizan, bederatzi ta erdietan ta meza ontara euskaltzaiñak juango dira.

II.—Azkue jaunak Ultzama'n egin diran euskal-jaien beŕi eman digu; berau an izan zan aita Intza lagun zuela; ez dago zer esanik pozik entzun duela Euskaltzaindiak bere Buruak esan duena.

Aita Intza'k esan digu Napaŕoa'ko *Euskeraren adiskideak* asierako lanetan zintzo ta atzaŕi dabiltzala.

III.—Azkue jaunak Humboldt'en esku-idazki bat gai-bide artu-ta bere lan bat irakuŕi digu. Urkijo jaunak ere zerbait irakuŕi digu Azkue jaunaren lana bidez dala.

IV.—Urkijo berak esan digu oraintxe argitaratu dala «Teatre comique basque» ta liburu onen ale bat ona litzakela geuganatzea. Euskaltzaindiak bayezkoa eman du.

V.—Zadorlariak irakuŕi du Ormaetxea urgazle jaunak bialtzen duen lana. Lan au euskal-esakerai dagokiena da. *Euskera*'n argitaratuko da.

VI.—Landeŕetxe'k ekaŕitako beste euskal-esakera batzuek Zadorlari berak irakuŕi ditu.

VII.—Azkue jaunak ere berak bildutakoak irakuŕi ditu.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldia.